

Euzko-erri-Jakintza

“Birkiña'ren agurra”

“Xipri soraluzetara”

Txaria, bere abarr-zuri ta orri txiki ugarijagaz i zuzgazioren polita !. Mañari'ko aitz andi ta jagijetan orretariko asko egoan. Eta zugatz polit ezagun orrek, beste zugatz asko baño txikijagoa ixaten dan arren, arri-arrete aretan bere burua zutik eta arrorik agertzen eban. Erriko emakumiak euren begi gozoz maitegarriro jotzen ebala, baiekijan edo... i Bai-ba, etzekoandra maratzak, euren lan batzuk txukunkiro ta egokiro egiteko bere biarr ixaten ziran eta... !

Gure errijan, txara-egurra, onespen miragarrijan bagetaz onetzita ballegoan, gauza on eta berezizat etsiten zan. Ixan be txara-autsaz egiñiko lexibiaren txukuna ! Eguzkijaren mosu gozoak laztantzen ebanian, edurra baxen zuri ta aitz-ura baxen garri agertzen zan. i Beste lexibakandik alde galanta ! Zegaz egiña zan itandu biarrik ezegoan, bere burua berak agertzen eban ondo.

Eaita txara-egurragaz egosiriko lapikokoa be, bardiñian, beste egurrakaz egosirikoak baño sunda gozoagoa ixaten ebala be esaten eban. « Goiti » bazetxeko etxaguna zan « Txuan-Goti » gixonak eta bera lako beste atso-agura askok txariagaz egosiriko baba-lapikoak « aparteko-grazija » ixaten ebala sarritan esaten eban beintzat.

Lenago barriz, Mañari'n, txaria, « Birkiña'ren egurra » ixenagaz ezagutzen zan. Saspigarren karla'ren gudatian, gudarierdeldun batek, « Kaudalategi » ko Maipatxu andia zarrari txara— egurrak ze ixen eban itandu eutzon. Eta Maipatxuk, erdera-mordolloz onan erantzun eutzon.

— Esto ser leña Birkiña, para lexiba y lapikoko eztago iñun bardiña.

Ixen polit orren jatorrija barriz, gure erriñuan iñuntxu baten bitartez azalduten zan.

« Bein baten, « Bidekurutze » basetxeko Mari neskatilla, lexibia egosteko egurra ekarteko asmuz, basorantza juan zan ; eta bidian joyala arri-mokil andi baten ganian agure zarr bat negarrez ikusi eban. Gure neska, aguriaren itxura ituna ikusita tamaldu egin zan, bijotz-bigunez itanduten eutzolarik :

— Aitita, zegaitik negarr egiten dozu... ?

Ta aguretxuak negarr-zotifnez erantzun eutzon :

— Neure artaldeko bildots bat galdu dalako negarr egiten yonak neska. Basorik-baso ta mendirik-mendi bere billa ibilli nazan arren, aztarrenik be iñun etxonat aurritu ta...

— Bildots bategaitik orrenbeste negarr... ? Zeure artalde ederrian bildots ederrik asko eztaukazuz ba... ?, barrirokoan Mari esan eutzon.

— Bai baña... askoren artian be baten utza, beti utz... Bata lez bestia be, neure-neuriak danak-barriz... Oi nire bildots ederra... !, eta aguriak, ori esanda, negarr geyago egiten eban.

Ori entzunik Mari errukitu zan ; eta bijotz oneko neskotilliak, aitz eta mendijak joranez arakatuta, galduriko bildotsa labarpe andi baten ertzian bixirik eta zutik aurritu eban.

Eta artzain-zarra Mari'k bildotsa eroarrtian poz-pezoz jarri zan irri barrez esaten eutzolarik :

— Bijotz-oneko neskatil maitagarri orrek, gaur poz andi bat ekarri dostan... Jaunak onetsi ta zaindu agiala beti... Eta... Orain, on-egiñaren saritzat zer eskatzen dostan ba ?

Ta Mari zintzoak, irri-barrez erantzun eutzon :

— Ezertxu be eztautzat eskatzen ba aitita... Orraitik, lexibia egiteko egurrak onenak nun dagozan esaten badaustazu esan, poz-pezoz jarriko nintzake.

Orduan, aguriak Artzate-gana eskuagaz erakutzita, begi-argiz esan eutzon :

— Ua Artzate-ganera bal ? ta antxe arri-arreteko lurr-UNETAN, abarr zuri ta orri txikidun zugazñoak ugeri aurrituko dozan. Zugatz txiki polit orren egurragaz ta beragaz egiñiko autzagaz Ama Neskatza Josu Umia berotu ta bere soñekotxuak garbitzen yohazan ; eta zugatz orrek urrin egozanetan donokiko angeruak euren ego zuri-bigunetan egurrak arrotuta, Neskatza'ri maitasunez ta itzalez eroaten eutzozezan. Beraz, zugazñoaren egurrak donokiko Amak bere eskuakaz onetsirikoak dozan... Orregaitik egurr orren autzagaz egiten dan lexi-

Azpeitiarrak, euren erriko seme ta done andiaren egunian jai-andiak ospatzen dabez, inguru guztietatik notintza andiak eurrez bertaraturik.

Egun orreitako baten, an juan zan Xipri soraluzetarra jayari beria emoteko asmoz.

Egualdi ederra zan, eta Azpeiti-Azkoltin, munduko abarrketagillerik onenak antxe diralaik, abarrketa zuri-ederrekin ebilla gaztedi guztia.

Gure Xipri ostera, Soraluze'ko bere izkillu-olan iru aste inguru lanian jarduniko abarrketa kolpetsubekaz ebilla. Oartu eban arek, zuri-ederrekandik kolpetsubekana eguan aldia, ta abarrketa barriekaz jaubetzeko askuratxua sortu jakon kaxkarrilan.

Eta baña... txindirik ez aldian. Zer egin ?

Gauza erreza.

Sartu zan saloki edo denda baten, eta itandu eban :

— Ba'al dezute abarrketa zuririk ?

— Bai, izango ez ditugu ba !

Ekarri eutsezan. Jantzi euzan. Oñaz arin-arin nabatuki, kabriola bat edo beste egin eban.

« Esplikasifioyak » emoteko orduba eldu zala igarri ebanian, bai diñotso Xiprik dendariari.

— Zuk ikusi al'dezu iñolz plaxentziatarrik antxitxiketan ?

— Nik ez.

— Ointxe ikuxiko dezuz ba ! — esanaz batian, tximiztia baño ariñago urten zan salokitik, eta jakiña, gaur arte.

Beste bein, Xipri, izkillugifian urri-aldia zala bide, Donostia'n kalegarbitzalle sartu zan.

Udaroa zan. Kixkaltzeko beruak egiten euzan.

Egun orreitako baten, Boulevard'eko akaitetxe andi baten aurrian, izerdi-lanatan, Donostia'ko alkatiak aurkitzen zan, garagardo pitxarr andi bat aurrian ebala.

Andik urbil, ara ta ona ixuzki andiarekin, antxe ebilla Xipri, ta, alkatiak baxen egarri andiarekin ibili be. Baña... betiko bañia Xiprik ; iru lamaiko bakarrik sakelian. Eta iru lamaikorekin ezin eitekean garagardo andirik edan. Garagardua edatekotan, lamaiko arek baño buru-argia biarrago zan.

« Disimulo » guztiarekin urreratzen da, ba, alkate jaunarenagana, ta... aretzaz eta onetzaz barriketatan asi... garagardo apurren bat atarako ete eutsan ustian.

i Leku onian ebilla !. Alkate jaun a, seken-utza zalako. Ak emon iñori ezer i ezta... !

Gure kale-garbitzalla barriz, geruago ta egarriago.

— Alkate jauna — esan eutsan Xiprik — jokotruke polita ikusi ta ikasi nion lengo egun batez plaxentziatar bat, ta orain, nai baldin ba'dezu, iru lamaiko jokatuko dizutaz, zure aurreko garagardo ori, zuk oartu gabe, zuk ikusi gabe nik edan baitez.

— Nai nuket ba jokotruke ori ikusi ! — esan eutsan alkatiak —. Jokatzen diozkat iru lamaikoak !

— Ezta gauza errezagorik, alkate jauna ! — Eta pitxarrari esku blekin eldubaz, danga-danga, ustu dautso kale-garbitzalliak.

— Et ! et ! et ! i Ikusi aut ! — diñotso alkatiak — ikusi aut eta galdu dek jokua... galdu dek...

Egia, galdu eban jokua, baña bai iru lamaikorekin pitxarrkada garagardua edan-be !

ABELETXE.

bia edurra baxen zurija ixaten don, eta beragaz egosten lapikokoa eztija baño be gozoagoa... Ua ba, Mari, ta neure esana egiña egundo etxana damuko...

Ta Mari neskatilla onak artzain-zarraren esana osoosoan eginda, aurrerantzian, errijan lexibarik zurijenak eta lapikokorik gozoenak egiten ebazan ; eta bere egiñena zala-ta aldiko emakumerik aintzagarriena errijan bera ixan ei-zan.

Orra ba, txariari ezarririko ixena ipuin politez azalduta. Euzkadi'ko erriñuetan, amaikatxu onako ipuin eta asele polit ba-dagoz egon be.

Bistintza'tar Errose
« Mañari'ko ».